62/2020 EBAZPENA, ABENDUAREN 22KOA, INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEARENA

Espedientea: 2020/000247

Gaia: ..... jaunak, Anerreka Ingurumen Elkartearen izenean eta ordezkari gisa, aurkeztutako erreklamazioa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean aurkeztu zuen informazioa eskuratzeko eskaera ustez ezetsi egin zaiolako.

AURREKARIAK

1.- Espedientean egiaztatzen denez, 2020ko irailaren 9an, ... jaunak, Anerreka Ingurumen Elkartearen izenean eta ordezkari gisa, eskaera bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean, eta honako hau eskatu zuen:

> *1.- ANERREKA INGURUMEN Elkartea aipatutako prozeduretan (AAI 00304 Baimen bateratuan eta EIA 414 ingurumen-inpaktuaren adierazpenean) interesatutzat hartzeko.*
> *2- AAI 00304 Baimen bateratuan jasotzen diren instalazioetarako, emisioak jarraian kontrolatzeko instalatutako neurgailuek EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarean 2019an jasotako eguneko batez besteko balioak (foku eta parametro guztientzako – 2. eta 3. fokuetan Partikulak, HCL, HF, COT, SO2, NOx, CO, Hg, O2, Emaria, tenperatura, presioa eta hezetasuna-).*
> *3- AAI 00304 Baimen bateratuan jasotzen diren instalazioetarako, emisioak jarraian kontrolatzeko instalatutako neurgailuek EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarean 2020an (urtarriletik irailaren 8a arte, horiek barne) jasotako ordu-erdiko batez besteko balioak (foku eta parametro guztientzako – 2. eta 3. fokuetan Partikulak, HCL, HF, COT, SO2, NOx, CO, Hg, O2, Emaria, tenperatura, presioa eta hezetasuna).*

2.- 2020ko urriaren 26an, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean sartu zen ..... jaunak, Anerreka Ingurumen Elkartearen izenean eta ordezkari gisa, aurkeztutako erreklamazioa. Hauxe azaltzen da haren bidez:

> *«Pasa den 2020ko irailaren 9an eransten den eskaera EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILARI aurkeztu genioen eta oraindik ez dugu eskatzen dugun informazioa jaso, ezta inongo erantzunik. Bertan ikus dezakezuenez, hau eskatzen genuen:*
>
> *Idazki hau aurkeztutzat edukirik, onartu dadila eta:*

1.- ANERREKA INGURUMEN Elkartea aipatutako prozeduretan (AAI 00304 Baimen bateratuan eta EIA 414 ingurumen-inpaktuaren adierazpenean) interesatutzat hartzeko.

2- AAI 00304 Baimen bateratuan jasotzen diren instalazioetarako, emisioak jarraian kontrolatzeko instalatutako neurgailuek EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarean 2019an jasotako eguneko batez besteko balioak (foku eta parametro guztientzako ? 2. eta 3. fokuetan Partikulak, HCL, HF, COT, SO2, NOx, CO, Hg, O2, Emaria, tenperatura, presioa eta hezetasuna-).

3- AAI 00304 Baimen bateratuan jasotzen diren instalazioetarako, emisioak jarraian kontrolatzeko instalatutako neurgailuek EAEko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarean 2020an (urtarriletik irailaren 8a arte, horiek barne) jasotako ordu-erdiko batez besteko balioak (foku eta parametro guztientzako ? 2. eta 3. fokuetan Partikulak, HCL, HF, COT, SO2, NOx, CO, Hg, O2, Emaria, tenperatura, presioa eta hezetasuna).

Ingurumen arrazoiak direla eta, eskatutako datuak euskarri informatikoan ematea eskatzen dizuegu, eta ahal bada, anerrekaelkartea@gmail.com helbidera bidaliz ?lainoan? lan egiten duen programa baten batekin (Dropbox, Wetransfer, Drive....).

Hori dela eta zuen esku hartzea eskatzen dugu».

3.- 2020ko azaroaren 12an, Batzordeak erreklamazio hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera bidali zuen elektronikoki, txostena egin zezan eta gaia ebazteko esanguratsutzat jotzen zituen agiriak aurkez zitzan, jakinarazpena egin zitzaion egunaren biharamunetik aurrera hamar egun balioduneko epean. Dena den, horretarako emandako epea igaro da, eta ebazpen hau idatzi denerako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak oraindik ez du alegaziorik egin. Beti hartu behar dira kontuan kasu honetan eragina izan dezaketen aldagaiak. Horren arabera, adierazi behar dugu desiragarria zatekeela Sailaren irizpidea ezagutzea, hark judizio-elementu garrantzitsuak eman baitzitzakeen planteatu den auziari buruz erabakitzeko. Dena den, Batzorde honi lagundu ez izana deitoragarria izan arren, Sail horrek alegaziorik ez egiteak ez du eragozten aurkeztutako erreklamazioa ebaztea.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

1.- Irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak (Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoak) 1. artikuluan ezartzen duenez, aipatu Informazio Publikoaren Sarbiderako Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoan bere egiten ditu abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoak) laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako eginkizunak.

2.- Era berean, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak (Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoak) 3. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Batzordeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkide edo toki-erakundeetako administrazio publikoen eta euskal sektore publikoko gainerako erakundeen berariazko nahiz ustezko ukatzeei buruz aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak) 24. artikuluan araututako informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzearen arloan xedatutako aurkaratze-araubidea aplikatuz.

3.- Bestalde, aipatutako abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak) 13. artikuluan ezartzen duenez, informazio publikotzat hartzen dira I. tituluaren aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.

ERREKLAMAZIOA ONARTZEA ETA OINARRI JURIDIKOAK

1.- Aztergai dugun erreklamazioa ingurumenaren arloari buruzkoa da, eta horregatik aztertu behar da, aldez aurretik, erreklamazio hori Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean sartzen den edo, lege horren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa kontuan hartuta, ingurumenaren alorreko araudi espezifikoa bete behar den, hau da, 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumen alorrean informaziorako, parte-hartze publikorako eta justiziarako eskubideak arautzen dituena.

Bestalde, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen lehen xedapen gehigarriak bigarren apartatuan ezartzen duenez, «*araudi espezifiko baten pean izango dira, lege honetan ezarritako araudia osagarri dutela, informazioa eskuratzeko araubide juridiko espezifikoa duten gaiak*». Ondoren, hirugarren apartatuan, honako hau ezartzen da: «*Ildo horretan, lege hau aplikagarria izango da, kasuan kasuko arauetan aurreikusten ez den guztian, ingurumen-informaziorako eta berrerabilerarako informaziorako irispideari dagokienez*».

Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak azaroaren 12an eman zuen 8/2015 interpretazio-irizpidea, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen lehen xedapen gehigarria aplikatzeari buruzkoa, informazio publikora iristeko eskubidearen erregulazio bereziei buruzkoa baita xedapen gehigarri hori. Baina interpretazio-irizpide horrek ez du ezer argitzen gai honi buruz. Herritarrentzako berme-araubide bi daude,

eta araubide horietako bat ez da hain bermatzailea, uztailaren 18ko 27/2006 Legean aurreikusten dena, ez baitu berariaz aurreikusten organo independente baten aurrean erreklamatzeko aukera. Bada, bi araubide desberdin egoteak dakarren hutsunea eta kontraesana kontuan hartuta, autonomia-erkidegoetako organo independenteak interpretatzen ari dira posible dela, hain zuzen ere izaera osagarri horregatik, ingurumen-informazioaren esparrura zabaltzea abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako aukerako erreklamazioa, herritarrei berme handiagoa dakarkielako. Uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ez du aukera hori baztertzen, are gehiago, onartu egiten du, 20. artikuluan honako hau ezartzen baitu: «*Agintari publiko bati egotz dakiokeen egintza batek edo, hala badagokio, ez-egite batek lege honek informazio eta parte-hartze publikoaren arloan aitortzen dizkion eskubideak urratu dituela uste duenak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII. tituluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian araututako administrazio-errekurtsoak jarri ahal izango ditu*». Horregatik, ingurumen-informazioa publikoa denez abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoaren ondorioetarako, ulertu behar da administrazio-errekurtsoen ordez aukerako berariazko erreklamazioa jarri behar dela agintaritza independentearen aurrean, gainditze hori dela eta. Horrenbestez, azaldutako guztiagatik, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak eskumena du ingurumen-informaziorako sarbidea ukatzeagatik egiten zaizkion erreklamazioei erantzuteko. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea bezalako organo espezializatu eta independente baten aurrean erreklamazioak egiteko bide gehigarri bat, borondatezkoa, azkarra eta doakoa izateko aukerak, geroko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baztertzen ez duena, guztiz koherentea dirudi, gainera, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen eta hark transposizioz jasotzen dituen Europar Batasuneko zuzentarauen azken helburuarekin: ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubideari ahalik eta berme gehien ematea, ingurumena babesteko tresna den aldetik. Erreklamazio horrek berme handiagoa ematen die herritarrei administrazio-bidean, administrazio-errekurtsoak baino; izan ere, erreklamazio hori agintaritza independente batek ebatziko du, eta ez erreklamatzen den egintza eman duen organoaren egitura hierarkikoko organo batek.

2.- Hasierako informazio-eskaera Eusko Jaurlaritzaren orduko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari aurkeztu zitzaion 2020ko irailaren 9an. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak 20.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, aipatu Sailak hilabeteko epea zuen ebazpena eman eta jakinarazteko.

3.- Bestalde, goian aipatutako Legearen 24.3. artikuluak dioenez, erreklamazioa izapidetzean, kontuan hartu behar da Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak errekurtsoei

buruz dioena (gaur egun, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari begiratu behar zaio). Horri dagokionez, Legearen 122.1. artikuluan xedatuta dagoenez, errekurritu den administrazio-egintza zehatza ez bada, eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete, noiznahi, araudi espezifikoaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera. Ondorioz, erreklamazioa epe barruan jarri dela ulertu behar da.

4.- Dena den, kasu honetan, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen lehen xedapen gehigarriko lehen apartatuan ezarritakoa aplikatu beharko litzatekeen aztertu behar da. Izan ere, honako hau dio: «*Abian den administrazio-prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia*».

Izan ere, lehenik eta behin, ... jaunak eskatu zuen espedientean interesdun gisa ager dadila eta, gero, emisio-balio jakin batzuk eman dakizkiola, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk Donostiako udal-mugartean sustatutako hondakinen balorizazio energetikoaren proiektuari emandako ingurumen-baimen integratuari dagokionez (baimena Ingurumen sailburuordearen 2010eko apirilaren 23ko Ebazpenaren bidez eman zen). Ondorio horietarako, ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean (2.2.b) artikuluan), ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean (5.1.g) 2. artikuluan) eta kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan bertan (3.19 b) artikuluan), honela definitzen dira pertsona interesdunak:

> *«b) Irabazteko asmorik gabeko edozein pertsona juridiko, betekizun hauek betetzen baditu:*
> *1.a. Bere estatutuetan adierazitako xedeen artean jasotzea ingurumenaren babesa, oro har, edo ingurumeneko elementuren baten babesa, berariaz, eta xede horietan eragina izatea ingurumen-baimen integratua emateak edo bera nahiz beraren baldintzetakoren bat berrikusteak.*
> *2.a. Bi urte lehenagotik, gutxienez, legez eratuta egotea eta bere estatutuetan jasotako xedeak lortzeko beharrezkoak diren jardueretan modu aktiboan aritzea.*
> *3.a. Eskatutako ingurumen-baimen integratua jaso behar duen instalazioak eragiten dion lurralde-eremu batean jardutea, bere estatutuen arabera*».

..... jaunak aipatzen dituen espedienteetan interesdun gisa agertzea ez da batere hutsala, horren baitakoak baitira hainbat egoera juridiko, hala nola hasieran emandako

ingurumen-baimen integratua aldatzeko edo berrikusteko etorkizuneko prozeduretan interesdun izatea, testu bateginaren 14. artikuluan aurreikusten den moduan, edo 24. artikuluan ezartzen diren aurka egiteko ahalmenak. Era berean, interesdun izaera indartu egiten da ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean araututako proiektuen ingurumen-ebaluazioaren kontsulta-izapidean. Ez dagokio Batzorde honi Anerreka Ingurumen Elkarteari interesdun-izaera aitortzea — alderdi hori prozeduraren instrukzio-organoak ebatzi behar du—, baina deklarazio horretarako *ad hoc* prozedurarik ez dagoela egiazta dezake. Beraz, ... jaunaren eskaera Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak izan beharko luke kontuan, arestian aipatutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 3.19 b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela ikusita. Hori egiaztatzeko, Batzorde honetan jasota dauden estatutuak eta Elkarteen Erregistroaren ziurtagiria aurkeztu behar dira, ziurtagiri horretan, elkartea 2017ko uztailaren 17tik Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatuta dagoela jasotzen baita.

5.- Hala ere, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen lehen xedapen gehigarriaren lehen apartatuaren azterketarekin jarraituz, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia kasu honetan bakarrik izango litzateke aplikagarria: interesdun direnek abian den administrazio-prozedura batean parte hartzen dutenean. Ondorio horietarako, eskaeran aipatzen diren prozedurak ez dira abian diren prozeduratzat jotzen. Ingurumeneko sailburuordearen 2010eko apirilaren 23ko Ebazpen bidez amaitutako prozedurak dira. Ebazpen horren bidez, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zen eta ingurumen-baimen integratua eman zitzaion Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk Donostiako udalerrian sustatutako hondakinen balorizazio energetikorako proiektuari. Horrenbestez, ondorioztatu behar da abenduaren 9ko 19/2013 Legea (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) aplikatu behar dela. Gainera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak duen Anerreka Ingurumen Elkarteak 2. eta 3. zenbakietan eskatutako informazio guztia eman beharko da, informazio publikoa baita, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 13. artikuluan adierazten den moduan.

Aurrekoa aintzat hartuta, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak, aho batez, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena.- ..... jaunak, Anerreka Ingurumen Elkartearen ordezkari gisa, aurkeztutako erreklamazioa balioestea, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean aurkeztu zuen informazioa eskuratzeko eskaera ustez ezetsi egin zaiolako.

Bigarrena.- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzea eskarian agertzen den informazioa eman diezaiola erreklamatzaileari, 10 eguneko epean, gehienez ere.

Hirugarrena.- Ebazpen hau erreklamaziogileari eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari jakinaraztea.

Laugarrena.- Ebazpena Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen web-orrian argitaratzea, behin erreklamaziogileari jakinarazpena eginda eta datu pertsonalak bereizi ondoren.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa soilik jar daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, 10.1.m) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Batzordekidea

María Soledad Gutiérrez Rodríguez

Batzordeburua

Javier Bikandi Irazabal

Batzordekidea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino.